UDAL-HAUTESKUNDEAK

KALAPUTXI

MUTRIKUKO HERRI-ALDIZKARIXA
2019ko maiatza 194. zenb.



MAIATZA: LOREAK MENDIAN, LOREAK HERRIAN

GURE TXAKURRAK (II): ESANAK ETA IZENAK

MUTRIKU ARRAUN TALDEA: APALTASUNEAN LEHIAKOR

ZIRIAKO ANDONEGI MIKROIPUIN-LEHIAKETA

afiziotik ofiziora

INHAR MUTIOZABAL


PRESTATU
ZAITEZ
DIODO NAHIZ ARGI
PULTSATUAREN LASERRAREKIN
ETA GORPUTZ TRATAMENDU
EZBERDINEN BITARTEZ
IZAN APAIN
apain
DOMINGO IBAIBARRIAGA, 3 BEHEA - 20830 MUTRIKU - 943 60 42 29 / 608 684 416 - APAIN@APAIN.NET


lea artibai
ikastetxea
LANBIDE HEZIKETA
Aurrematrikula datak:
EKAINAREN 3tik 14ra
gu, lanerako prest!
erdi mailakoak
BEROA SORTZEKO INSTALAZIOAK
(iturgintza, eguzki instalazioak, gasa)
MANTENTZE-LAN ELEKTROMEKANIKOA
goi mailakoak
ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK
MEKATRONIKA INDUSTRIALA
WEB APLIKAZIOEN GARAPENA (2.maila)
FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKZIOAREN PROGRAMAZIOA
ELIKAGAIEN INDUSTRIAKO PROZESUAK ETA KALITATEA
EFIZIENTZIA ENERGETIKOA ETA EGUZKI ENERGIA TERMIKOA
AUTOMATIZAZIOA ETA ROBOTIKA INDUSTRIALA
www.leartik.eus
Markina-Xemein
946169002
info@leartik.eus

Telefonoak

Osasuna

Larrialdiak	943 46 11 11
Anbulatorioa	943 60 43 00
DYA zentrala	943 46 46 22
Mendaroko ospitala	943 03 28 00

Botikak

Lasuen-Elezgarai	943 19 50 26
	626 61 13 92
Lon Apraiz	943 60 32 50
	630 05 50 97
Amaia Zalduegi	669 26 22 01
Hiart Burgoa	667 33 88 90
Etxeberria (Elgoibar)	943 74 01 40
Garitaonaindia (Elgoibar)	943 74 11 77
Yudego (Elgoibar)	943 74 12 93
Barrenetxea-Etxeberria (Elgoibar)	943 74 12 77
Idoia Lafuente (Eibar)	943 25 44 10

Udala, zerbitzuak...

Udaletxea	943 60 32 44
Udaltzaingoa	943 60 70 48
	679 16 25 00
Gizarte Ongizatea	943 19 50 81
Anai Arte	943 60 42 47
Zaharren Egoitza	943 60 38 71
Eguneko Zentroa (Deba)	943 19 23 60
Turismo Bulegoa	943 60 33 78
Bake epaitegia	943 60 70 49
Kiroldegia	943 60 31 75
Liburutegia	943 60 41 82
Miruaitz pilotalekua	943 60 41 91
Ur Partzuergoa	902 30 22 22
Zakarrak eta traste zaharrak	943 70 07 99
Posta zerbitzua	943 60 30 44

Irakaskuntza

Goizeko Izarra Ikastola	943 60 36 75
San Miguel Ikastetxea	943 60 31 95
Mutrikuko Institutua	943 89 92 24
Udal Euskaltegia	943 60 30 94
Udal Musika Eskola	943 60 37 80
Haurreskola publikoa	943 60 41 19

Garraio zerbitzuak

ANSOLA taxia	638 67 23 83
ANTON taxia	666 22 19 99
XABI taxia	656 28 90 26
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa Autobusak	902 10 12 10
BizkaiBus	902 22 22 65
EuskoTren	902 54 32 10
Loiuko Aireportua	905 50 50 05

Bestelakoak

Parrokia	943 60 39 87
Bikario etxea	943 60 39 88
Santa Catalina eleiza	943 60 32 00

KUKUA KANTARI... A, EZ! MOBILA ZAN!

Udaberriaren bihotzean gaude, txoritxoak kantari, belardiak eta lorategiak dir-dir eta gu, zer? Beti bezala, mobileko pantailari begira.

Baina, orain ez gara errealitatea ukatzen hasiko. Gaur egungo mugikorrek bizitza asko erraztu digute. Atera kontuak aparato bakar batekin zenbat maniobra egin genezakeen: Esnatzeko, iratzargailu balio digu; gosaltzen ari garanean eguneko albisteen berri ematen digu; etxetik mugitu gabe bankuko gestioak egiten ditugu; lagunekin, eguneko pasadizoak whatsap bidez; eguneko agenda bertan kontsultatzen dugu eta horrela gure egunerokoan mila gauza egiteko mobilaz baliatzen gara. Sasoi batean gizakiaren lagunik onena txakurra omen zen. Orain? Zalantzan jarriko nuke.

Ia! Gure intimitatearen parte garrantzitsu bilakatu da. Asko komunera ere mobilarekin joaten dira (oraingo martxan kaka trankil egitea ere ahaztu egin behar zaigu).

Bikotearekin xirri momentua iritsi eta gelan bi egon beharrean, lau. Mesanotxe bakoitzean mobil bana eta alboan ohekidea (Maluman abestiak dioen bezela Felices los 4). Hauxe marka!

Lagun artean gaudela eta haurtxoa negarrez hasten dela... txupetea eman beharrean, mobila!

Seme-alabak etxean ixil-ixilik daudela, ez pentsa liburua irakurtzen ari direnik, wasapeatzen, seguruena. Oraingo martxan gure gaztetxoei lagun artean jolas egitea ahaztu behar zaie... Futbol partida amaitu ondoren, jokaldiak komentau eta txokolate bokadillua lasai jan beharrean... *Braul Stars* edo *Clash Royal*en jolas egiten dute, gainera elkarrekin konektatuta. Hitz egiten ere ahaztu behar zaigu oraingo martxan.

Baina ez pentsa gure belaunaldi gazte hau erruduna denik. Ezta gutxiorik ere! Haizeak erein ditugu eta orain ekaitza dator. Nagusiagoak ere bide beretik goaz. Familian bazkaltzera joan eta mahaira ekarritako platerkadaz gozatu beharrean, mahaikideekin elkarrizketan jardun beharrean, mobil madarikatuaren menpe! Olatzen zehar buelta ederra eman eta kukua entzunda emozionatuta egon beharrean, argazkia atera eta sarera igotzen dugu! Baina wifi ez badago, kezkatuta; eta koberturarik ez badago, Dramoia!

Artikulu hau irakurtzen ari zeraten askok agian ez daukazue mobilitis sindromerik baina zoritxarrez beste askok bai, neugandik hasita. Astebete mobilik gabe egoteak barruan hutsunea, tristura eta ezin egona sortzen badigu, gauzak ez doaz ondo, oso gazki baizik!

Oraindik menpekotasun horretan bizi ez zeratenoi, bejondeizuela eta eutsi!

Besteok, XXI. mendeko mobil-yonkiok, hasi gaitezen gero eta urrutirago daukagun errealitatera hurbiltzen, bestela, laster ez dugu non bizi garen ere jakingo.

Argitaratzailea **Karenka komunikazio elkartea**
Barrenkale 12, behea - 20830 Mutriku Tel. 635 748 393
e-posta **aldizkaria@kalaputxi.eus** - **kalaputxi2001@gmail.com**
web **http://www.kalaputxi.eus** Bloga **www.kalaputxi.blogspot.com**
Laguntzaileak **Mutrikuko Udala** eta **Gipuzkoako Foru Aldundia**
Kolaboratzaileak **Iñigo Andonegi, Josu Larrañaga.**
Tirada **2.200 ale** Lege Gordailua **SS-787/01** ISSN **1579-4792**
Inprimategia **EUSKALINPRI** Banaketa **Kalaputxi**

Kalaputxi Herri-Aldizkarixak
Erakunde hauen diru laguntza jasotzen du:

Mutrikuko Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia

garraioagarraioagarraioagarraioagarraioa

www.lurraldebus.eus - 900 300 340

astelehenetik ostiralera

DB03 LEKEITIO-DONOSTIA (Debaraino, DB93 lantzadera)

Lekeitio	6:00	9:40	12:40	17:35	19:45	
Mutriku	**6:30**	**10:15**	**13:10**	**18:05**	**20:15**	
Deba	6:50	10:30	13:30	18:25	20:35	
Donostia	*7:55	11:30	14:30	19:30	---	*Unibertsitatetik

DB03 DONOSTIA-LEKEITIO (Debatik, DB93 lantzadera)

Donostia	8:00	11:00	*14:30	18:00	20:30	*Unibertsitatetik
Deba	8:40	11:40	15:15	18:40	21:10	
Mutriku	**9:00**	**12:00**	**15:35**	**19:00**	**21:30**	
Lekeitio	9:35	12:35	16:10	19:35	22:05	

DB04 ONDARROA-MALLABIA (Debaraino, DB92 lantzadera)

Mutriku	**7:00**	orduro	**20:00**	**21:10**	**21:50**	**22:20**
Deba	7:30	orduro	20:30	21:40	22:20	22:50
Eibar	8:15	orduro	21:15	22:30	22:45	23:15
Mallabia	8:30	orduro	21:30	22:45	---	---

DB04 MALLABIA-ONDARROA (Debatik, DB92)

ostiral lanegunetan

Mallabia	6:00	6:45	orduro	20:45	21:25	22:05	23:55
Eibar	6:10	7:05	orduro	21:05	21:45	22:15	00:00
Mendaro	6:35	7:35	orduro	21:35	22:10	22:30	00:15
Deba	6:45	7:45	orduro	21:45	22:20	22:35	00:20
Mutriku	**7:15**	**8:15**	orduro	**22:15**	**22:50**	**23:05**	**00:50**

DB04G ONDARROA-EIBAR (Debatik, DB92G) Larunbat gauetan

Mutrikutik	23:05; 23:35; 1:35; 3:35; 5:35

DB05 MUTRIKU-ZUMAIA

Mutriku	Donostiara, Mallabiara eta Soraluzera doazen lantzaderak hartu behar					
Deba	6:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40
Zumaia	7:10	10:10	12:10	14:10	17:10	19:10

DB05 ZUMAIA-MUTRIKU

Zumaia	8:10	10:10	12:10	15:10	17:10	
Deba	8:40	10:40	12:40	15:40	17:40	
Mutriku	Donostia, Mallabia eta Soraluzetik datozen lantzaderak hartu behar					

DB06 ONDARROA-SORALUZE (Debaraino, DB91 lantzadera)

Mutriku	**8:30**	**10:30**	**12:30**	**14:30**	**17:30**	**19:30**	**21:30**
Deba	9:00	11:00	13:00	15:00	18:00	20:00	22:00
Soraluze	9:40	11:40	13:40	15:40	18:40	20:40	22:40

DB06 SORALUZE-ONDARROA (Debaraino, DB91 lantzadera)

Soraluze	7:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40	20:40
Deba	8:10	10:10	12:10	14:10	17:10	19:10	21:10
Mutriku	**8:40**	**10:40**	**12:40**	**14:40**	**17:40**	**19:40**	**21:40**

larunbat, igande eta jai-egunak

bide-mozketa dela eta, ordutegiak eguneratuta

DB03 LEKEITIO-DONOSTIA (Debaraino, DB93

Lekeitio	7:45	12:15	16:45	18:45	
Mutriku	**8:15**	**12:45**	**17:15**	**19:15**	
Deba	8:40	13:10	17:40	19:40	
Donostia	9:40	14:10	18:40	20:40	

DB03 DONOSTIA-LEKEITIO (Debatik, DB93 lant

Donostia	10:30	14:30	17:00	lg 20:30	Lr 21:00	
Deba	11:10	15:10	17:40	21:40	21:10	
Mutriku	**11:30**	**15:30**	**18:00**	**22:00**	**21:30**	
Lekeitio	12:15	16:15	18:45	22:45	22:15	

DB04 ONDARROA-MALLABIA (Debaraino, DB92 lantzadera)

Mutriku	Lr **7:00**	lg **8:00**	orduro	**20:00**	**21:10**	Lr **21:50**
Deba	7:30	8:30	orduro	20:30	21:40	22:20
Eibar	8:10	9:10	orduro	21:10	22:30	22:45
Mallabia	8:25	9:25	orduro	21:25	22:45	---

DB04 MALLABIA-ONDARROA (Debatik, DB92 lantzadera)

Mallabia	Lr 6:50	lg 7:45	orduro	Lr 21:45	lg 19:45	
Eibar	7:00	8:00	orduro	22:00	20:00	
Mendaro	7:35	8:35	orduro	22:35	20:35	
Deba	7:45	8:45	orduro	22:45	20:45	
Mutriku	**7:55**	**8:55**	orduro	**23:15**	**21:15**	

DB04G EIBAR-ONDARROA (Debatik, DB92G) Larunbat gauetan

Eibartik		Debatik	1:05; 3:05; 5:05; 6:05

DB05 MUTRIKU-ZUMAIA

Mutriku	Donostiara, Mallabiara eta Soraluzera doazen lantzaderak hartu behar						
Deba	8:40	10:40	12:40	14:40	16:40	18:40	20:40
Zumaia	9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	21:10

DB05 ZUMAIA-MUTRIKU

Zumaia	Lr 9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	Lr 22:10
Deba	9:40	11:40	13:40	15:40	17:40	19:40	22:40
Mutriku	Donostia, Mallabia eta Soraluzetik datozen lantzaderak hartu behar						

DB06 ONDARROA-SORALUZE (Debatik, DB91 lantzadera)

Mutriku	**9:30**	**11:30**	**13:30**	**17:30**	**19:30**	**21:30**
Deba	Lr 10:00	12:00	14:00	18:00	20:00	22:00
Soraluze	10:40	12:40	14:40	18:40	20:40	22:40

DB06 SORALUZE-ONDARROA (Debatik, DB91 lantzadera)

Soraluze	8:40	10:40	12.40	16:40	18:40	20:40
Deba	Lr 9:10	12:10	13:10	17:10	19:10	21:10
Mutriku	**9:40**	**11:40**	**13:40**	**17:40**	**19:40**	**21:40**

www.euskotren.eus

Bilbo - DEBA - Donostia	lehena A-O	lehena L-I	azkena egunero
Eibar	6:14	7:14	21:14
Elgoibar	6:24	7:24	21:24
Mendaro	6:33	7:33	21:33
DEBA	**6:44**	**7:44**	**21:44**
Zumaia	7:00	8:00	22:00
Zarautz	7:08	8:08	22:08
Orio	7:15	8:15	22:15
Errekalde	7:29	9:29	22:29
Donostia	7:38	9:38	22:38

Donostia - DEBA - Bilbo	lehena A-O	lehena L-I	azkena egunero
Donostia	5:50	7:50	20:50
Errekalde	5:59	7:59	20:59
Orio	6:14	8:14	21:14
Zarautz	6:20	8:20	21:20
Zumaia	6:29	8:29	21:29
DEBA	**6:43**	**8:43**	**21.43**
Mendaro	6:52	8:52	21:52
Elgoibar	7:01	9:01	22:01
Eibar	7:11	9:11	22:11

Bizkaibus 902 222 265

ONDARROA - BILBO

astelehenetik ostiralera

	lehena	azkena
A3916 **Ermuatik**	5:40	19:40
Mutrikutik irten: 6:25, 7:25, 15:25		
A3915 **Durangotik**	6:10	20:10
Ondarroatik Bilbora **zuzenean**: 6:30; 7:30		

jai egunak

A3916 **Ermuatik**	6:40	20:40
A3915 **Durangotik**	7:10	20:10

BILBO - ONDARROA

astelehenetik ostiralera

	lehena	azkena
A3916 **Ermuatik**	7:10	22:10
Mutrikuraino: 14:10, 18:10, 20:10		
A3915 **Durangotik**	7:40	21:40

jai egunak

A3916 **Ermuatik**	8:10	22:10
A3915 **Durangotik**	8:40	21:40

Gutunak izen abizenekin bidali: kalaputxi2001@gmail.com edota aldizkaria@kalaputxi.eus *Kalaputxik ez du bere gain hartzen aldizkarian hirugarrenek adierazitako esan-iritzien erantzukizunik.*

"HIZKETAN EGIN NAHI EZ DUENAK, ARRAZOIRIK EZ DUEN SEINALE"

Harriturik geratzen naiz batzuen jokabideaz. Hainbeste maite dituzue mendi, zuhaitz eta abarrak, ordea, ez duzue ezer demostratzen. Gure herriko sailetan, adibidez Ormola aldean, hainbeste landare sartu genituen; diru pila bat gastatuz. Gerora zer jarraipen egin diozue? Ezer ez, ezertxo ere ez. Abandonatuta utzi. Ikusi duzue aspaldian zein egoeratan dauden landareak eta ingurua? Horiek erakutsi behar dizkiozue jendeari? Zuek ere, ez zarete leku zikinetik ibiltzen, besteek garbitutako lekutik baizik. Eta gainera, nahiago duzue eskabadora handiek egindako pistetatik ibili sasi artean baino. Jakina, mendiek hobeto emango lukete pagadiekin, hariztiekin, edota gaztainondoekin. Horrela, udazkenean mendi buelta egiteko otarretxo bat hartuta parean ikusten diren gaztaina, intxaur edota perretxikoak hartuko zenituzkete, eta etxera eraman. Horretaz gain, esaten duzue mendia denona dela, naturak ematen dituela denak; hori bai, landareak sartu, zaindu eta garbitzeko garaian, kontribuzioa ordaintzen dutenek egin dezatela. Bestalde, landare klaseak zeintzuk sartu behar diren eta mendiak nola garbitu behar diren ere esaten duzue, nahiz eta bertara joan ez. Zergatik guk nahi ditugun landareak ezin ditugu sartu? Erantzuna betikoa da. Gure etxeak izan arren ere, ezin dugu egin nahi duguna. Noski ezetz! Ordea, hori guztiontzat dago. Nolanahi ere, zuek agindutako landareak sartu behar al ditugu? Batetik, traba egiten duen arbolarik kendu ezin dugun-eta, bestetik, zuen gustuko belar edota garoren bat agertzen bada, akabo.

Hanka sartzeak egiten ditugula? Seguru baietz, beste askok bezalaxe. Hala ere, hizketan eginda gauza asko zuzendu daitezke, eta ez mehatxuak edota denuntziak jarrita. Zaharrek esaten zuten, "hizketan egin nahi ez duenak, arrazoirik ez duen seinale".

Beraz, zain gaude zuek zaindutako baso edota mendiak ikusteko; horrela, aukera izango genuke otarretxoarekin joateko. Mendiak osorik nahi badira, ea aitzurrarekin bideak egiten dituzuen, bestela eskabadorearekin jarraitu beharko dugu-eta.

Aipatu bezala, hizketan egitea beharrezkoa dugu, ostera, gauza gehiago ere egin behar da.

Mendiak zerbait ona izan badu, edo baldin badu, jakin, hori baserritarrei esker izan dela, eta orain oztopoak jartzea, zuek ezer egiten ez duzuen bitartean, ez zaigu batere ondo iruditzen; bestela, egin eta demostratu.

MUBAE - Mutrikuko Baserritarren Elkartea

ANITZAK GARA! GURE KOLOREA MOREA DA!

Hauteskundeetako kanpainen barnean berdintasunaren alorrak geroz eta garrantzia handiagoa jasotzen duela bistakoa da, batzuetan feminismoak berak ere baduelarik tartea. EMA kideontzat pozgarria da benetan hori, nahiz eta, hauteskunde kanpainetan askotan salatzen dugun alor hau aurpegiak zuritzeko erabiltzen dela.

Horren harira, gure etxeetan, datozen udal hauteskundeen baitan, EAJ alderdiak bere programazio politikoan, EMA Guneko argazkia erabili du. Erabilera horren aurrean harridura eta haserrea sortu zaigu EMA kideoi.

EMAk hasiera-hasieratik azpimarratu du Mutrikuko emakume feminista guztion gunea dela eta inoiz inongo alderdiekin loturarik sortu nahi ez dugula. Jakina da Udalarekin elkarlanean aritzen garela askotan, nahiz eta irakurketa ezberdinak izan hainbat alorretan. Argi utzi nahi dugu Udalarekin dugula harremana eta ez alderdi politikoekin. Beraz, emakume feminista guztioi eta herritar guztioi argitu nahi dizuegu EMA anitza dela, gure politika feminista dela eta ez gaudela inongo alderdiekin loturik.

EMA -Emakumeak Mutrikun Abixan-

MUTRIKUK GOBERNU AURRERAKOIA BEHAR DU

Esperientziak ematen digun prespektibatik hiruzpalau lerro idaztera eraman gaitu, gure ustetan, nahiko ezkutatuta geratu den 2015eko pasadizo garrantzitsuak .

Esan bezala, 2015eko ekainean herritar gehiengoak harriduraz hartu zuen alkatetza aukeratzeko plenoan B+I koalizioak PNVri alkatetza eman izana, EH Bildu lehen indarra izan arren.

Haserreak haserre edo pozak poz, horixe gertatu zen, eta oraingoan ere, episodio berbera gerta daitekeen zantzuak dauzkagu. Guztiok dakigu, azken lau urteetan, jeltzaleek ez dutela udal kudeaketa konpartitu nahi izan.

Gure ustetan Mutrikuk udal gobernu indartsu eta konpartitua behar du, beti ere norabide aurrerakoi edo progresistaren gidaritzapean.

Guztion programak ikusi edo entzunez, nahi hori bete edo bidera dezakeen bakarra EH Bildu da, berdeen botoa, behar bada, PNVra joan daiteke-eta berriro ere.

Adeitasunez,

Rosa Goenaga eta Markel Arizmendi









ehbildu



Alkategaia
Joseba Palenzuela Arrieta

MUTRIKUAR GUZTIEN BIZITZA HOBETU NAHIAN

Aurki hauteskundeak, hurrengo lau urteetarako udal berria eratzeko hauteskundeak. Batzuenak eta besteenak irakurrita, azkar ikusiko dugu denok bilatzen dugula herriarentzako onena. Guk ere bai, noski. Horregatik, uste dugu udalaren kudeaketa denon artean eginda herria indartuta atera daitekeela. Berdin eta ezberdin pentsatzen dugunok elkarlanean jarrita, asko irabaziko luke herriak. Eta horixe proposatzera goaz: udalaren kudeaketa konpartitua. Zaila izango dela? Noski, baina herriak eta herritarrek eskertuko dute. Ez gatoz gauza errazak egitera bakarrik.

Gauden unera ailegatu aurretik EH Bilduk lan handia egin du herriaren egoera hobeto ezagutzeko, eta ezagupen horrek erakutsi digu herrian arazo asko dagoela, herritarren eguneroko bizimoduan eragin zuzen-zuzena dutenak: errenta eta errekurtso txiki-txikiak dituzten pertsonekin hasita, gurasoenetik irten nahi duten gazteekin edota herrian bertan bere etorkizuna garatu nahi duten herritarrekin jarraituta.

Mutriku lotarako herri bat baino gehiago izan dadin nahi dugu, postalerako herri polita baino gehiago. Eta udalak gidatuta, herritarrek etorkizun berri bat eraiki dezaten bultzatu nahi dugu. Udalak eta herritarrek, batera tira eginda. Horretan, udalaren, herriko eragileen eta gai bakoitzean adituak diren lagunak beharko ditugu. Inor ez da sobera egongo.

Esperantza handia dugu jarrita mutrikuarrongan, beraiek izango direlako gure politiken helburua, eta beraiekin batera garatu nahi ditugulako helburuak lortzeko bideak. Bidea delako garrantzitsua. Bidea egitea, eta bidean lagunak behar dira. Gure lagunak zuek izatea nahi dugu, mutrikuarrok.

Gure asmo on denak aurrera ateratzeko, hortaz, zuen laguntza eta babesa behar dugu. Guztiarekin hasteko, lehenengoa hauteskunde egunean EH Bilduren taldeari babesa eta bozka ematea izango da. Zuen indarra behar dugu une honetan, eta gero ere bai. Ez al da, ba, azkenengo bezala gertatuko! Bozka gehien izan eta gobernatzeko aukera galdu!

Zure bozka, herriaren alde; zure bozka, EH Bildu!

Herri txikia da gurea eta hamaika arazo daukagu. Ez ote da hobe etorkizunaren alde elkarrekin lan egitea?

Hainbat mutrikuarren egoera ez da ona. Dexente langabezian dago eta hainbat langile prekarietate gorrian.

Herriko 500 pentsiodun inguru larri bizi da. Handik edo hemendik lagundu egingo diegu.

Berrehundik gora alargun prekarietatean bizi da. Ez dugu, ba, bestaldera begiratuko!

Gazteria etxetik irten ezinda eta langabezian asko eta asko. Etxebizitzak eskuragarri jartzen lagunduko dugu.

Adinekoek eta ezinduek, hamaika arazo kale aldapatsuetan ibiltzeko. Bizpahiru igogailu jartzen saiatuko gara.

Egunero 1.600 lagun ateratzen da kanpora lanera. Aukera eta modu berriak bilatuko ditugu lana erakartzeko.

Azken 4 urteetan gestio motela izan da: 2 milioi euro eduki eta ezin gastatu. Larria da hori.

Akuakultura, energia berriztagarriak, elikadura burujabetza eta turismo jasangarria dira gure erronkak.

Pertsona guztien eskubideen alde eta injustizia guztien aurka borrokatuko dugu. Euskal presoak etxera!

Informaziorik ez zaio faltako herritarrari. Eta gaiak erabakitzeko herri-kontsultak behar badira, egingo ditugu.

Feminismoa sustraitu egin da gure bizitzetan. Loratzen lagunduko diogu, pertsona guztiak berdinak gara eta.

Mutrikuko altxorrik handiena, jendearen konpromisoa. Kulturan, kirolean, feminismoan, gai sozialetan... Benetan lagunduko dugu!

EAJ PNV



Alkategaia
Jose Angel Lizardi Agirregomezkorta

EMAN BIDEA MUTRIKURI

Mutrikuko udalerako EAJ-PNVren talde bezala aurkezten garenok ilusio handiz ekiten diogu ibilbideari proiektu eta asmo berriekin. Azken lau urtean eginiko Mutriku hobetzeko lan handiari jarraibidea eman nahi diogu. Gure nagusi eta ahulenen bizi kalitatea, berdintasuna, irisgarritasun arazoak, merkataritza eta ostalaritza, kultura eta kirol ekipamenduak, landa eremuko kontuak, ingurumena, mugikortasuna, gazteak, kultura eta euskara,... Mutriku, bizitzeko inguru atsegin eta erakargarri bihurtzeko lan egiten jarraituko dugu. Mutrikuarren lehentasunak, beharrak aditu eta kezkak eta iritziak jasoz, udal programa ausart bezain egingarri hau aurkezten dizuegu.

HIRIGINTZA: Orain urte batzuk zehaztu zen herri antolaketa dagoeneko berrikusi eta etorkizuneko Mutriku berria marrazten joateko garaia iritsi zaigu. Horretarako ezinbesteko tresna den herriko arauak berrikuste prozesuari ekingo diogu, herritarren parte-hartze zabalena bultzatu eta adostasun handiena bilatuz denon arteko Mutriku eraikitzeko.

Mutrikuko irisgarritasun arazoei irtenbideak aurkitzen jarraitu. Fondaberri aparkalekua anbulatorioarekin eta San Agustin San Migel kaleak komentu inguruan lotuko dituzten igogailuen proiektuak idatziko ditugu. Mijoa errekako saneamendu lanak amaituta, gainean Saturraraneraino luzatuko litzatekeen bidegorria lortzeko lan egingo dugu. Mugikortasunean, berrikuntza beharrean dauden San Agustin kalean hobekuntza integrala burutu oinezkoei lehentasuna emanez eta Atxitxin jaitsierako eskailerak berritu, bertatik ibiltzea seguruago eta erosoago gerta dadin. Deba ibaiko plan berezia bultzatzen ahaleginduko gara hobetzen ari diren errepideak eta pasealekuak Debako zubiraino jarraipena izan ditzaten. Reiner pabilioia bota eta Ondarbeltz ingurua aisialdirako berreskuratu, horrek, Urazemendikeko auzotarrei hobekuntza nabarmenak ekarriko lizkiekeelarik.

ONGIZATE: Gizarte zerbitzuen mapak ezartzen dituen lehentasunak garatuko ditugu. Horien artean, 80 urtetik gorako pertsonen beharrak jakiteko egin genuen azterlanak antzemandako premiei erantzuteko plana abian jarriko dugu. Etxeetan zaintza lanean aritzen diren pertsonen formazio saioak antolatuko ditugu. Herrian familiaren batek bizi izan dezakeen larritasunezko egoerari aurre egiteko etxebizitza bat ere erosi nahi dugu. Lan munduan txertatzeko zailtasunak dituzten pertsonei aukerak eskaintzeko sortutako erakundeen arteko gizarteratze lan sarean parte-hartze aktiboa izango dugu. Herrian erretiro osasuntsua sustatzeko programak bultzatuko ditugu eta jubilatuek parte-hartze aktiboa izan dezaten lagundu.

BERDINTASUNA: Mutrikuko II. Berdintasun plana prestatu eta garatuko dugu berdintasuna eta parekidetasuna eragileekin herrian elkarlanean sustatzeko. Udal barneko prozedura eta ekimenetan ere berdintasuna txertatuko dugu arlo guztietan zeharkako lerro modura ezarriz.

HERRIKO ONDAREA: Dugun ondare historiko, artistiko eta natural ugaria zaindu eta mantentze lanean jarraituko dugu. Alde zaharrean ditugun jauregi multzo ederraren aurrealdeak beren onera ekartzeko diru-laguntzak bideratuko ditugu. Indusketa arkeologikoak, herriko historiaren ikerketa eta ondare ukiezina gordetzea ere bultzatzen jarraituko dugu. Arkugainen itsas museoa garatu eta Kofradia Zaharreko Bentalekua berregingo dugu.

INGURUMENA: Herriko kaleetako argiterian hasita gauden energia eraginkortasunaren zabalkundean aurrera pausuak ematen jarraituko dugu. Plastikoen erabilera murrizten joan dadin sentiberatasun ekimenak bultzatu eta zabor bilketa sistema eraginkorragoa izan dadin Mankomunitatearekin neurri egokiak aztertuko ditugu (pedalak jarri,.)

Pinuen gaixotasun larriak, basoen kudeaketa berri baten beharrak eta hauen zaintzaren ardurak kezkatzen gaitu. Horrela, beraz, baserritarrekin elkarlana bultzatuko dugu, kezkak jaso, landaketetarako egokienak izan daitezkeen espezieak elkarrekin aztertu eta landaketako prozesuetan dituzten beharretan bidelagun izaten ahaleginduko gara. Arnoko lur publikoak ere garbituko ditugu.

MERKATARITZA-OSTALARITZA: Tokiko merkataritza eta ostalaritza babestu eta indartzeko Merkataritza biziberritzeko Planeko proposamenak garatuko ditugu. Ekintzailetza bultzatu eta proiektu berriak garatzeko baliabide teknikoak eta materialak ere eskainiko ditugu. Formakuntza saioak eta negozio ikuspegi berriak ezagutarazteko ahaleginak egingo ditugu. Bertan elkartearekin orpoz orpo arituko gara beharrei egokiak izan daitezkeen aukerak aurkitzen. Kofradia zaharrean portu ingurua biziberrituko lukeen kalitatezko ostalaritza zerbitzua sustatzeko elkarlanean arituko gara Eusko Jaurlaritzarekin.

KULTURA-KIROL EKIPAMENDUAK: Kultura arloan ditugun ekipamenduen berrantolaketa burutuko dugu. Komentua elkarte ezberdinen arteko sinergiak sortzeko erabili nahi dugu eta hala, kultur gune aktiboa bihurtu. Zerbitzu gaurkotu eta behar berrietara egokituko den liburutegi berri baten proiektua idatziko dugu. Era desberdinetako eta kalitatezko emanaldiak eskainiko lukeen antzoki edo areto erabil anitzaren kokapena adosteko lan egingo dugu, ondoren proiektua idazteko. Ditugun kirol ekipamenduak era egokian mantentzeko inbertsioak egiten jarraituko dugu eta behar berriei erantzun egokiak ematen ahaleginduko gara.

EUSKARA: Euskararen erabilera arlo guztietan normalizatze bidean jarri asmoz, kalitatezko ekimenak eskaintzen eta burutzen jarraituko dugu. Herriko ikastetxeekin euskarazko irakurketa eta idazketa bultzatuko ditugu. Teknologia berrietan euskararen erabilera zabaltzeko lan egingo dugu eta euskarazko hedabideak laguntzeaz gain sustatzen ere jarraituko dugu.

HAUR ETA GAZTEEN ZERBITZUAK: Jolas parkeak berrituko ditugu adin desberdinetako haur eta gazteak kontuan hartuz. Hauetako parke bat estaltzeko aukera aztertuko dugu. Eskaintzen diren Ludoteka, Gazteleku eta kale hezitzaileen zerbitzuak hobetu asmoz berrazterketa egingo dugu.

GOBERNU ONA: Udaleko arreta hobetuko dugu eta herritarrenganako hurbiltasuna sustatu parte-hartzea bultzatuz. Behar berrietara hobeto egokitu nahi dugun udalaren barne antolaketaren inguruko azterketa sakona bultzatuko dugu. Udal informazioa helarazteko bide berriak ere jorratuko ditugu.

Mutrikun sinisten dugulako! Geure onena jarriko dugulako!

b+i
MUTRIKUKO
BERDEAK ETA INDEPENDENTEAK



Alkategaia
Iñigo Aguirre Arrieta

MUTRIKU HOBEA MUNDUA HOBEAGO: OAINTXE!

Kaixo Mutrikuar Maittiak!!

Lehenik eta behin gure esker eta agurrik beroenak zuen sinaduren bitartez hauteskunde hauetan beste aukera bat egotea bermatu dezuten herritarroi. Esker berezi bat baita gure zerrenda osatzen duten kide bakoitzari. Kolore askotako berdeak gara. Horregatik erabaki genuen hautesle elkarte bezala aurkeztea.

Gure Leloa: **Mutriku Hobea- Mundua Hobeago**. Gure herri txikian pentsatuaz gauza handiak lor daitezke gure planetarentzako. Gure seme alaba eta bilobei uzten gauden mundu honetan orainaldia kolonkan eta etorkizunik ez.

EZ GARA BERDINAK Behin eta berriz katalogatu gaituzte. Baina ez. Ez gara berdinak!. Besteak bezalakoak bagina ez ginateke aurkeztuko.

Gure ardatzak:

INGURUMENA: Aldaketa klimatikoa aurrera doa etenik gabe. Biaoaniztasuna kinka larrian. Gure herriko ingurumenaren zaintza ez da aukera, betebeharra baizik. Amalurra babestea Mutrikun hasi behar dugu.

ONDAREA ALDARRIKATZEA: Natur eta Kultur ondarea. Gure belaunaldiari utzi diguten legatua maitatu eta babestu.

PUBLIKOA DENAGATIK BORROKATU ETA DEFENDATZEA: Denona dena, denon artean, denontzako zaindu behar.

INTERES OROKORRA LEHENESTEA: Herri txikietan ez da lan erraza; Talkak behin eta berriz.

UDALA HERRITARROKIN ADISKIDETZEA: Bi norabideko lana. Batetik **Udal Garden** bat informazio guzti guztia eskuragarri daukana. Oraindik lortu ez dena aurretik dauzkagun inertzien ondorioz. Bestetik herritarrok Udalaren erabakiengan konfidantza apur bat eraikitzea.

GAZTEEN LAGUNTZA BEHAR DUGU: Zeuek zarete herri honen orainaldia eta etorkizuna. Zuen beharrak zuek baino hobetoago ez ditu inork defendatuko. Zuenak dira hitza eta ekintza.

EZBERDINEN ARTEKO AKORDIO BILAKETA: Multipartidismoa dugu gogoko. Ez genuke nahi gehiengo absolutorik, ezta guretzat ere. Bestearen tokian ipini eta elkarrekin erabakitzea nahiago dugu. Kontsentsua da bidea.

HERRITARREN PARTAIDETZA: Onura orokor baten bilakaeran.

HIRIGINTZA: OREKA GALDU GABE. Datozten Arau Ordezko berrietan oreka hau lortzeko lan egingo dugu. Orain arte izan ditugun ingurumen babes neurriak defendatuz eta posible bada zabalduaz. Asko dago jokoan.

LIBRE-MENTE / MENTE-LIBRE Bakoitzaren izaera eta nortasunarekiko errespetuak aberasten gaitu.

AZPIEGITURAK HERRITARRON ZERBITZURA ETA EZ ALDERANTZIZ
Gure portua "ERDI DES-EGINDA". Herritarrontzako gureganatu beharra daukagu Kofrai zaharrarekin batera. Dikea bere tokian errematatu eta inguru guztia humanizatu.

Saturrararango dike zaharra erretiratu eta hondartzaren edertasuna berreskuratu.

Mijoa eta Artzain erreka proiektu integral baten landu behingoz.

BAZTERTE ARRISKUAN DAUDEN GIZA TALDEEI BABESTU: Pobrezia, gaixotasun fisikoak, mentalak, mendekotasuna duten herritarrak, menpekotasunak pairatzen daudenak: Ludopatia, drogak... Denok osatzen dugu Mutriku. Estigma eta aurreritziak alboratu ditzagun. Elkar zaindu gaitezan.

OROKORREAN UDALAREN KUDEAKETA ZENTZUDUN ETA EKONOMIKOKI JASANGARRIA. Guztion dirua ez da inorena. Zorrak bai ordea.Udaletxea denon etxea delako.

ETA GURE HERRIKO BESTE GAIETAN... Borondate finko bat eta esperientzia. 20 urtez gure ardatzak ez dira aldatu. Lehen mantentzen genuena defendatzen dugu oraindik. Udaleko langile eta beste alderdietako kideekin batera gauzak aurrera aterako dira.

Azkenik **GORA MUTRIKU!** Handia den herri txiki baten bizi gara. Bizitzeko toki aparta. Suertekoak gara. Sinistu dezagun!

PSE-EE PSOE



Alkategaia
Jon Aldalur Arozena

NAHI DUGUN MUTRIKU

Alderdi Sozialistaren hauteskunde-programa konpromiso etiko eta politiko bat da Mutrikuk aurrera egitea lortzeko. Gardentasuna, pluraltasuna, bizikidetza, partaidetza, berdintasuna eta konpromiso so-ziala dira gure kudeaketarako izan nahi ditugun printzipioak, eta agenda sozialari eta zerbitzu publiko-en hobekuntzari emango diegu lehentasuna.

Kudeaketa-programa serio eta zorrotz bat proposatzen dizuegu gure herriaren garapen jasangarria bultzatzeko, aurrerabide ekonomikoa eta soziala lortzeko proiektu partekatu batean.

GIZARTE-POLITIKAK

- Udalean gure lehentasuna izango da egoera ahulenean dauden kolektiboak babestea: adinekoak, haurrak, gazteak eta gizarte- bazterketa egoeran dauden pertsonak.
- Tokiko kontratazio publikoan enpresak berdintasunaren aldeko ekintzak eta programak burutzera bultzatuko dituzten adierazleak sustatzea.
- Giza eta aurrekontu- baliabideez hornitzea berdintasun-politikak garatzeko.

ENPLEGUA

- Kalitatezko enplegua bultzatzea eta laneratzea sustatzea, enpleguko toki- eta eskualde-planen bitartez.
- Laneratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonentzako programa zehatzak ezartzea.

GARAPEN EKONOMIKOA ETA JASANGARRITASUNA

- DEBEGESArekin lankidetzan tokiko garapena sendotzea, industria sustatzea eta merkataritzari laguntzak ematea.
- Tokiko merkataritza dinamizatzea.
- Gune historiko eta natural erakargarriak indartzea: turismo-bulegoa, Churruca etxea, Nautilus, Igeri-leku naturalak, Arno eta abar.
- Birziklatzearekin hartutako konpromisoa areagotzea.
- Eraikinetan eta argiteria publikoan eraginkortasun energetikoa hobetzeko inbertsioak.
- Hurbileko produktuen kontsumoa bultzatzea.
- Tokiko produktuen azokak eta feriak bultzatzea.

HIRIGINTZA

- Plan Orokorra garatzea.
- Irisgarritasunean hobekuntzak egitea.
- Zarataren aurkako neurriak.
- Hiri-mantentze zerbitzuak eta herritarren sentsibilizazio-kanpainak indartzea.
- Deba ibaiko Estuarioaren Planari berriro heltzea Urasandiko eta Hondarbeltzeko eremua birgaitzeko, zona degradatuak onera ekarriz eta auzotarren segurtasuna hobetuz.
- Pasabide irisgarri baterako konponbide alternatibo bat bilatu, Deba ibaiko zubiaren konponketa-lanek dirauten bitartean.
- Kalitate-maila optimoak exijitzea hondakin-uren arazketan.
- Haurren jolastokiak hobetzea eta parke estali bat sortzea (Egaña frontoia).
- Gazteentzako alokairu- laguntzen politikak sustatzea.
- Mijoa ubidea onera ekartzea.
- Saturraranerako oinezkoen pasealeku bat sortzea.
- Erakunde desberdinen arteko elkarlana bultzatu, esaterako, komentuari eta Bentalekuari dagokionean.

KULTURA

- Babesa gizarte, kultura eta kirolaren arloko erakundeei (bereziki emakumezko kirolari).
- Udal liburutegiko zerbitzuak berritu eta hobetzea.
- Hezkuntzako instalazioak mantentzea eta hobetzea hezkuntza-komunitate osoarekin elkarlanean: irakasleak, ikasleak, gurasoak.
- Udaleko komunikazioak elebidunak izan daitezen eskatuko dugu.

HARRITIK HERRIRA

Kanteratzean zehar joaten direla esaten dute adinean gora doazen herritarrek. Agian gazteenek ez duzue esaera hau ezagutuko. Ziur izan, hala ere, kanteratzean bueltan ibili, ibili zaretela.

Eta ibili horretan ikusi duzuela arrasto txuriz zatitutako berdegune bat, ikusi dituzuela berau inguratzen duten harmailak, baita alde banatan tinko dirauten ateak ere. Eta ziur txalotu dituzuela gutxi-asko batera eta bestera baloiari ostikoka dabiltzan neska-mutilak.

Kanteratzean zehar joaten direla esaten dute, egun futbolaren harrobia den honek izan zuelako benetako harrobi edo kanteratik lehenago.

Harritik sortu zenak, ordea, herrirako bidea hartu zuen duela ia zortzi harmarkada, garai hartan erein baikenuen mutrikuarrok oraindik ere etenik gabe hazten diharduen herriko futbolaren lehen hazia.

Gizonezkoen taldea etorri zen lehenengo, emakumeak atera ziren zelaira gerora eta ehunka gaztetxok, neska zein mutilek, girotzen dituzte egun kanteratzeko goiz eta arratsaldeak.

Mutriku Futbol Taldeak 75 urte bete ditu aurten eta zaila da denbora honetan izan dugun bilakaera lauzpabost lerrotan laburbiltzea.

Horregaitik, ezinbestekoak diren gertakizun eta bizipenen bilduma izatea helburu duen ekimen sorta zabala jarri dugu martxan hemendik eta uztailera bitarte.

Futbolaz arituko gara, noski, baina baita futbola ez denaz ere, eta horretarako ikus-entzunezko ekitaldiak, euskarri fisikoan landutako materiala, erakusketak, antzerkia edota herri bazkari bat antolatu ditugu, besteak beste.

Herrian tinko sustraituta dagoen taldea izanik, zuetako bakoitzari eskerrak emateko baliatu nahi dugu urteurren hau, atzera begiratu eta kolpez-kolpe, etenik gabe, gure aurrekoek harria lantzen zuten gisan, aurrera begira, ostikoz-ostiko, herria lantzen jarrai dezagun.

Ander Aranbarri Azkarraga
(Mutriku FT-ren izenean)



MUTRIKU FUTBOL TALDEAK DENDA ZABALIK

Klubaren 75. urteurrenaren barruan hainbat ekitaldi antolatu ditu Mutriku FT taldeak. Futbol-partidoak, hitzaldiak, antzezlana, bazkaria... Eta denda ere zabaldu du Erdiko kalean, Eskopeteronean. Dendan klubak urteurrenerako egin dituen jantziak izango dira salgai.

Dendaren irekieraz gain, aipatzekoak dira datozen asteetan datozenak (agendan egitaraua): MAI24 *Gaur egungo futbola* mahai-ingurua, MAI25 Mutriku FT- Erreala beteranoak, MAI30 *Dena ere ez da futbola* mahai ingurua, EKA8 Erreala-Eibar-Mutriku FT nesken triangeluarra, Mutriku FT-Aurrera eta *Jokoz kanpo* antzezlana. EKA22 Herri jaia. Ekainean zehar Zabielen Urteurreneko erakusketa izango da.

Igualatorioarekin eta
Osakidetzarekin
lan egiten dugu

Audioprotesista
egunero zentroan
Audiometriak doan

OPTIKA VITORIA
OPTIKA • AUDIFONOAK

ERRIBERA 16 • 48700 ONDARROA • 946134138 • mvitoria@cnoo.es



MUSIKA IDEIAK GRABATZEN IKASTEKO IKASTAROA (I)

Abesti bat sortu eta grabatzen ikasi nahi? MRK-k aukera emango dizu, horretarako oinarrizko ikastaro bat antolatu baitu, interesa duen edozeinentzat. Animatu zaitez!

- Programa: Cubase
- Izen-ematea: ekainaren 5era arte, **mrktarock@gmail.com** helbidera idatzita
- Ekarri beharrekoa: USB bat eta gogoa
- Eguna: ekainak 8
- Ordua: 10:00 (2-3 h gutxi gorabehera)
- Lekua: zehaztu gabe (lagun kopuruaren arabera)
- Irakaslea: Axular Arizmendi (AME estudioak)

Oharra: Programa gaztelaniaz izan arren, saioa euskaraz eskainiko da, eta jarraibide orri bana jasoko du bertaratzen denak.

Arnoko Mendi Lasterketa - Mutriku

ARNOKO MENDI LASTERKETA PREST

Ekainaren 9an izango da aurtengo Arnoko mendi lasterketa. Ekainaren 3ra arte izena eman ahal izango da on-line: herrikrosa.eus. Lasterketa egiteko 20 € eta ibilaldia egiteko 10 € ordaindu beharko dira. Informazio gehiago: **www.burumendi.org**.

MUBAE "GURE BASO LANDAKETAREN ALDE"

Duela urte batzuk gaitzak jotako pinua jotzen hasiz gero, pinuaren ondoren zer landatu izan da lursail jabeen buruko min eta kezka handienetako bat. Argi dago zuhaitzak kendu ostean zuhaitz berriak sartu behar direla, baina ikuspegi ezberdinak daude landaketerako orduan. MUBAE (Mutrikuko Baserritarren Elkartea) elkarteak deituta maiatzaren 11n Goiko plazan egindako elkarretaratzean "Gure baso landaketaren alde" leloa aldarrikatu zuten, beraien lursailetan egin nahi dituzten landaketak egiteko erraztasunak eskatzeko. Diotenez, Mutrikun inon baino baldintza zorrotzagoak baitaude.



oreka zentroa



Masajea eta osteopatia
Hitt entrenamendua
K-Stretch luzaketak
Posturologia
Enterenamendu planak



Oihana: 605 735 911 Jon: 696 675 665
gorputzoreka@gmail.com
Jose Maria Alzibar 12, behea - Mutriku

inhar mutiozabal

afiziotik ofiziora

Zarauztik Mutrikura etorritakoa da Inhar. Alaba baten aita, gaur egun mutrikuartzat du bere burua.

Dagoeneko toaila hondartzan ez eta danborrean ipintzearen abantailak ulertzen dituena; itxura serio baten atzean mutil umorezalea.

Gaztetatik argazkizale. Eskolan hasi zen lehenengo argazki kamera manejatzen, eta ordutik biltzen joan den diru-apurrak material berria erosteko eta ekipoa osatzen joateko erabili ditu.

Publizitatea eta Harreman publikoak ikasketak eginda, 4-5 urtetan Gipuzkoako publizitate-agentzia nagusienetako baten egin zuen lan bere kabuz hasi aurretik.

Zaletasuna bizibide bihur daitekeela ikusteko balio diezaguke Inharren adibideak.

Ez zen erraza izango, baina ekinaren ekinez, Inharrek lortu du ametsa: argazkigintzatik bizi ahal izatea, argazkilari profesionala izatea.

Mutrikun argazkilari hasi zinen...

Bi mila eta hamabi urtean, krisiaren gordinenean, Donostiako publizitate enpresa batean nuen lana utzi eta neure kabuz argazki-estudioa irekitzea erabaki nuen. Hurrengo urtean zabaldu nuen gaur artean Erdikokalen izan dudan denda, umetatik izandako zaletasunean sakondu eta bizimodua hortik aterata zoriontsuagoa izango nintzelakoan. Gaur beste jakin izan banu, ordea, hain jauzi bapatekoa ez nuen egingo, autonomo izatea oso gogorra baita. Hala ere, gaur ez dut egindakoaz damurik.

Estudioko lanetatik ezkontza-argazkigintzara egin duzu jauzi...

Denda-estudioa irekitzean herri txiki baterako pentsamendua hartu nuen: markoak, inprimaketak, foto-karnetak, ezkontzak, estudio-lanak, enpresentzako lanak... Baina duela hiru urte bizitzako kasualitateengatik Nelson Marques ezkontza-argazkilari portugaldarra ezagutu nuen eta orduan nire bizitza profesionalak erabateko bira egin zuen. Gaur egun mundu mailako errekonozimendua duen argazkilari hori argazkigintzako nire aitatzat daukat. Momentu horretatik ezkontza-argazkigintzaren aurreko nire ikuspuntua zeharo aldatzen da eta barne-lanketa garrantzitsua egiten hasten naiz bai teknikoki bai inspirazio-iturrietatik, eta espezializazioaren bidean jartzen naiz. Helburua berritzen dut eta estudioa beste modu batean planteatzen hasten naiz: denbora gehiago ezkontzaren aurreko prestaketa lanei, kalitateari garrantzi handiagoa emateko eta kontezptu fotografikoa gehiago lantzeko. Ikusten ez den atzeko lanari hasi nintzaion lehentasuna ematen. Horri esker, gaur egun izen bat lortzen hasi naiz eta sari batzuk ere lortu ditut, zortzi estatu mailan eta beste zortzi nazioarte mailan ere bai.

Zer da argazkietan bilatzen duzuna?

Ezkontza argazkietan eguna kontatzea da garrantzitsuena. Inspirazioa askotan gerra-fotokazetaritzatik hartu izan dut, errealitatea transmititzeko modua. Ezkontza baten errealitatea transmititzea lortzen duzunean, beste guztiak elementuak direla ikusten duzu: tokiak, jantziak...

Argazkietan une bat izoztea eta denboran iraunaraztea baino gehiago bilatzen dut. Sentimenduen bila joaten naiz, ezkontzak bikotearen bi familiak eta lagunarte osoak beharbada elkartzen diren egun bakarra direlako eta egun horretan sor litezkeenak inoiz ez direlako errepikatuko. Aiton-amonen edota haur jaioberrien eta ezkongaien artean sortzen diren uneak bakarrak izaten dira. Egun horretako uneak ez dira errepikatuko eta ezin duzu hutsik egin. Asko aldatu da ezkontza-argazkilaritza. Estetikatik errealitatea jasotzera pasatu da. Garai batean luntxera arte egoten zen argazkilaria, baina luntxaren ostean ere une asko dira jaso beharrekoak.

Ezkontza batean argazki bakar bat atera behar dudala esango balidate, ezkongaietako bat amonarekin edo aitarekin... duten uneren bat aterako nuke, beharbada bizitzan inoiz errepikatuko ez den unea. Jaso ditudan sarietan ere, argazki gehienak hortik doaz, emozioetatik, sentipenetatik. Paisajeak ere badu garrantzia, noski, baina gutxiago.

Seme-alabek hogei urte barru albuma hartu eta egun hura ia-ia bizitzeraino heltzea litzateke argazki-erreportajearen lorpen handiena nire ustez.

Hainbat mutrikuarri eskolak emanda zaude...

Estudioa ireki nuenean ikusi nuen herrian

LEA-ARTIBAI
Hileta zerbitzuak - Beilatokia
MUTRIKU Tel.: 943 60 41 20
ONDARROA: Arta Bide, 24 - Tel.: 946 830 960
Mug: 659 879 268

Ristorante AzkenEtxe
egurrezko labean egindako pizzak
italiar sukaldeko zapore guztiak
parrilladak · ospakizunak
(ezkontzak, familia-bazkariak, taldeentzako menu bereziak..)
asteazken iluntzetik igande gauera arte
943 60 34 39 · 636 386 016 · ristorante.azkenetxe@gmail.com · Kalbario gaina, Mutriku





zaletasuna zuen jendea zegoela, eta nozio basikoen inguruan ikastaroak antolatzea pentsatu nuen. Hasieran gehiago egin nuen, baina nire ibilbidean aurrera egin ahala, gero eta denbora gutxiago izan dut horri dedikatzeko. Kontuan izan bi urteren buruan, estatuan eta Europan zehar ikastaroak eta workshopak emateraino iritsi naizela. Adibidez, Oporton 300 argazkilari profesionalen aurrean eman nuen saio bat, eta horren prestaketak, jakina, dedikazio handia eskatzen dit. Erdikokale 4an 8 mutrikuarreko taldearekin hasi eta Oporton 300 profesionalen aurrean amaitu!

Argazki zaletasuna nola dagoela uste duzu?

Orain dela hamar bat urte boom moduko bat egon zen argazki kameren munduan. Reflex digital bat 300 eurotan erosteko modua egon zenean, argazkigintzaren demokratizazioa heldu zen, edonoren eskura jarri eta zaletu pilo bat agertu zen. Gerora, telefono adimenduak etorri ziren... Mutrikun munduan gertatzen ari dena ari da gertatzen: argazkia helburu bezala gero eta jende gutxiagok du. Orain argazkia beste helburu batzuetarako bidea da. Horren adibide garbia, Instagram. Norberaren burua mundura agertzea da helburua, kalitatean galduta. Edukiari ematen zaio garrantzia, ez argazkiak egiteko moduari. Gaur egun imajinak agertu nahi dira. Galtzen ari da argazkigintzaren oinarria: lengoaia, legeak...

Aurrera begira, nondik ikusten duzu zure ibilbide profesionala?

Kalean dudan estudioa utzi eta etxetik lan egingo dut aurrerantzean. Internet bidea asko landu izan dut betidanik, eta ate horrek negozio txikiei min handia egin badigu ere, aprobetxatzen ere jakin dugu. Nik ezkontza-erreportajeak egiteko enkargu gehienak on-line jasotzen ditut, eta edonondik etor litezke ezkongaiak. Adibidez, Donostian egin ditudan batzuk Filipinetatik, Estatu Batuetatik edota Finlandiatik etorritako ezkongaienak izan dira. Kanpoko herrialdeetara joanda ere diru asko irabazteko aukera egon daiteke, baina nik asko baloratzen dut etxean lo egin ahal izatea.

Gaur egun, on-line bideak asko funtzionatzen du hemen ere. Esan daiteke lehenengo harremana web orritik egiten dela, Mutrikun ere bai. Askotan argazkilariak familiak eta lagunek baino lehenago jakiten du ezkontzaren berri.

Mutrikun, ze etorkizun du argazkizaletasunak?

Ni Mutrikura iritsi nintzenerako argazki elkarteak ez zuen funtzionatzen baina polita litzateke zaletuak elkartzea eta motibazioari jarraituz afizioa garatzea. Gauza ederra litzateke gazte nahiz heldu batzuek talde bat eratzea eta herrian argazkizaletasunari aukera berria irekitzea. Ni laguntzeko prest. Garai baten Zarauzko elkartean hiru gazte hasi ginen gure zaletasuna garatzen eta gaur egun haietako bi profesionalak gara eta hortik bizi ahal izatea ere lortu dugu...





ARRIETA
AUTOZERBITZUA
Aliprox
J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01

Jon naberan
DISEINU eta BERRIKUNTZAK, s.l.
Telf. 685 731 969

MAIATZA

LOREAK MENDIAN ETA LOREAK HERRIAN

Loreak mendian eta loreak herrian; lorez beteko zaizkigu bazterrak hilabete honetan. Beharbada, udazken koloreek beste xarma bat izango dute, baina koloretsua da garaia hau ere.

Aspaldiko ohiturari jarraituz, Amalurra esnatzeko makilez lurra kolpatzen hasi ginenetik (Santa Ageda/eske garaitik) hilabete batzuk igaro dira, eta jada udaberri betean gaude. Ia oharkabean, urtaro erdia baino gehiago joan zaigu. Gregoriotar egutegiko bosgarren hilabetea bukatzen eta hortzak zorroztuta, uda gosez. Urtaro honen aMAI(era) hATSean.

Gatozen bada geurera, batzuentzat, beharbada, hitz aspergarriak edo pedantekeriak izango diren kontuotara. Dena den, zuri irakurle, irakurgai honekin tarte entretenigarri bat eskaintzen badizut, pozten naiz. Apur bat irakurtzen eta ikertzen hasiz gero, bitxikeria interesgarriak aurki ditzakegu, eta urrunera joan gabe gainera.

Maiatza da hilabete honi deitzeko erabiltzen den izen entzutetsuena. Diotenez, deitzeko era horrek ez omen du euskal jatorririk (latinezko maius hitzetik omen dator), eta agian arrazoia izango du hori dioenak. Hala ere, badira hain ezagunak ez diren deitzeko moduak, eta tamalez erdi galduta daudenak. Hona hemen horietako izen eta aldaera batzuk: maietza (B,G), orrila, ostaroa, ostoila, osoila, loraila (B), astoilla (G)...

- **Orrila:** "orri+ila"; orrien hilabetea esan nahi du.
- **Ostoila/Osoila**: Bi hauek "osto+ila" baturatik datoz, eta hostoen hilabetea esan nahi dute.
- **Ostaroa**: "Osto+aro" baturatik dator eta honek ere aurrekoaren antzeko esanahia du. Kasu honetan, hilabetea esan beharrean, aroa (sasoia/garaia) aipatzen du.
- **Loraila**: "lora+ila", loreen hilabetea esan nahi du.

Hilabete honetan betetzen dira orri, hosto zein lorez zuhaitz eta landareak; eta, hain zuzen ere, horixe erakusten digute goiko izen horiek. Hala ere, badago beste izen bitxi bat esanahi horretatik aldentzen dena, eta Mutrikun garai batean entzuten zena.

Hona hemen, Mutrikun hilabete honi deitzeko erabiltzen direnak eta garai batean erabiltzen zirenak: maiatza, maietza eta astoilla (astoen hilea).

Azken horixe da esanahi ezberdinena duena. Egia da "osto" eta "asto" hitzek antzekotasun handia dutela eta nahasketa baten ondorioa izan zitekeela, baina Gotzon Garatek jasotako atsotitz hauek adierazten dutenez, mutrikuarrak ondo zebiltzan "astoila" esatean.

- "Maiatza, astoen hilabetea"
- "Maiatza, asto aro eta (h)osto oro"
- "Astoa maiatzean arrantza"
- "Otsaila katuen hila, maiatza astoen hila".

Otsailari "Kataila/Katuila" ere esaten zitzaiola aipatu genuen bere garaian, sasoi hartan zeloan (edo arreskean) egoten direlako; maiatzari, aldiz, "astoila" ere deitu izan zaiola jakin dugu, hain zuzen ere, arrazoi beragatik.

Dena den, astoak asto eta hostoak hosto... uda ate joka daukagu, eta horretaz ohartzeko, gure bazter eta zelaietara begiratzea besterik ez dugu.

Ernatu dira udaberri(ko) loreak!

Ibon Aginaga Imaz



Ziriako Andonegi mikroipuin lehiaketa

SARI NAGUSIA

SUA

Aitak txikitan oparitu zien fusilak ez zuen hutsik egiten.

Etxean ondo ikasi zutenez, ezkerreko hanka lurrean sendo zapaldua zeukan. Belauna trinko. Gerrikoa estututa eta alkandora barrutik sartuta. Kulata eskuineko sorbaldan gogor eutsita. Atzaparra katuan irmo. Txapel gorria buruan.

Bero gehiegi ematen zion txapelak, baina berandu zen kentzeko.

Kopetako izerdia malkoekin batu zitzaion.

Burua altxatu zuenean, anaiak baiezko keinua egin zion, hormatik.

Begiak itxi zituen. *"¡He dicho fueegoo!"*.

Unai Belaustegi Bedialauneta

GAZTE ONENA

ZUHAITZA

UdaberrIko argi izpiek eraginda irekitzen dira nire betazalak. Zapatak jantzi eta kanpora irten naiz, lorategirantz. Belarretan eseri naiz, goizeko ihintza sentituz behatzen artean. Freskotasunak barneratu nau, eta nire aurrean dagoen zuhaitzari begiratu diot. Zuhaitza, tinko, haize leunak hostoak laztantzen dizkion bitartean, udazkenaren zain dago; zain biluzik geratzeko. Baina ni jada biluzik nago, nahiz eta udaberria izan; nik ez dauzkat burua estaltzen zizkidaten ile kizkur horiek. Soil nago, baina barrua bizi-bizirik dut: Udaberriko txoriek piztu naute eta itxaropena dut, itxaropena zuhaitz atzean ezkutatzen den ospitaletik aldentzeko.

Jane Arreitunandia Arrieta

MUTRIKUAR ONENA

METAMORFOSIA

Aspaldian jasangaitza bilakatu zait soina. Sentimenduak zirimola ilunean biraka nabari ditut lehertze bidean, eta ikaskideen arteko erlazioek are zanpatuago sentiarazten naute, argi guztiak estaliz.

Agindutako Franz Kafka-ren "Itxura-aldaketa" irakurri baino, irentsi egin nuen bart, eta, goizean, ispiluaren aurrean, irria nabaritzera iritsi naiz. Ezberdina izan zait eguna.

Agur, Koldo! izan da entzun dudan azkena institututik etxeratzean. Garajera zuzenduz, motxilatik ateratako orrian hau idatzi dut: "Aita-ama eskerrak emandako guztiagatik. Maite zaituztet." Eta txanpela langatik pasatuz, lakioa egin dut idunean, eta tenkatu. Zutik jarrita, belaunak tolestuz, irristatzen utzi dut nire gorputzaren zama leporaino, amets ilunean sartu arte, "Leire" esnatuko naizen esperantzarekin.

Joakin Mari Larrañaga Arkotxa



MUTRIKU ARRAUN TALDEA apaltasunean lehiakor

Oinak lurrean dutela ekiten diote eguneroko lanari urteko xedeak betetzeko ahaleginean. Kirol edo konpetizio arloan iaz jasotako uztarekin pozik daude, Kantauri Arraun Elkarteak antolatzen duen bigarren mailan hamabost traineruren artean taularen erdi-erdian azaltzean, are eta gehiago Castro bezalako izen handiko klubak atzetik ikustean.

"Ez duguna ez dugu gastatuko" diote arlo ekonomikoari begira. Izaten duten sarrera guztiak herritarrengandik datoz: bazkide, Udala, enpresa babesleak eta herrian antolatzen dituzten ekintzetatik.

Arraunlariak lortzeak ematen die buruko minik handiena. Garbi dute hala izango dela oinarrizko egiturarik lortu ezean. Hala ere, ez dute etsitzen; iaz ia arraunlari guztiak herritarrak izatea lortu zuten, eta aurten nesken batela uretaratu dute. Instalazio berriak oinarrizko ikusten dituzte herrian traineru bat mantendu nahi bada.

Nola kokatzen da Mutrikuko Arraun Taldea estropaden mundu horretan?

Tradizio handia dute Euskal Herrian Kantauri itsasoaren magalen dauden herri gehienek. Guk Mutrikun ez dugu tradizio hori, agian, ibairik ez dugulako; hori dela-eta, hutsune handiak ditugu, eta horiek betetzen ahalegintzen gara, geure indar apurrak erabiliz, eta, jakitun izanik ibilera luzea eta lan mardula dugula aurretik. Hala ere, iaz bezalako denboraldiek indarrez betetzen gaituzte, berriro ekinean jarduteko.

Zeintzuk izan ziren iazko lorpenak?

Aurrez esan behar, denboraldia planteatzerakoan talde osoaren prestaketa fisikoari begira antolatzen dela traineruen txapelketan aritzeko (KAEren 2. mailan). Horrela, batel bakarra atera genuen uretara eta bi trainerila. Taldean 22 arraunlari izan genituen tostartean, eta horien artean bakarra beste herri batekoa, beste guztiak mutrikuarrak edo Mutrikun bizi direnak. Mutrikuar arraunlari guztiak ziren gure artean, inork ez baitzuen alde egin beste traineru batera.

Hamabost traineruk hartu genuen parte txapelketan, eta taularen erdian geratu ginen (7. postuan). Txapelketako estropadaz gain, beste estropadetan ere izan ginen partaide, guztira 22 estropada denboraldian, Santander, Bizkaia, Gipuzkoa eta Lapurdin, baita Legutioko urtegian ere.

Estropada antolaketa, materiala, bidaiak... Nola betetzen duzue arlo ekonomikoa?

Bi hitzetan esateko, herria da gure diru-iturria. Seiehun bazkidetik gora ditugu txintxo-txintxo euren kuotak ordaintzen. Traineru-babesleen izenak ditugu ezarrita gure traineruan, denak enpresa herritarrak, nahiz-eta batzuk inguruan kokatuta egon. Hala nola, Yurrita, Sagarmiña, Arbe hotela, Ibarplas, Iner Caravan eta Sitab. Enpresa txikiago eta tabernen laguntza ere badugu; euren izenak trainerua eramaten dugun atoian daude ezarrita. Horrez gain, herritarrek urtean bi aldiz, Madalen eta berdin Kalbaixo jaien aurretik atun errea prestatzen dute Beheko Plazan jendeak dastatzeko diru baten truke, eta berdel errea berdel egunaren aurretik. Udako denboraldian hondartza alboko piszinaren garbiketa ere Arraun Taldeak bere gain hartzen du, beste diru pixka bat ateratzeko.

Sarrera nagusia Udalaren eskutik datorkigu. Bulegoa daukagun lokalez gain, gure tresneria gordetzeko dugun lokalaren alokairua ere berak ordaintzen du. Herrian egiten den txapelketako estropada antolatzeko 5.000 euroko laguntza dugu, soilik sarietan kostatzen den 9.000 euroetatik. Horretaz aparte, beste kirol taldeek duten laguntzaren antzekoa ere jasotzen dugu.

Iazkoan gastu garrantzizkoak izan zenituzten?

Bai. Baina arau bat dugu: "Ez dugu ez dugun dirurik gastatuko". Hala, traineru berria erosi genuen (15.000 €), baita arraun berriak eta beste tresna batzuk ere (5.000 €)... eta kitto!, nahiz-eta behar gehiago izan.

Eta nola konpontzen zarete arraunlari taldea osatzeko?

Hori da arraun elkarte guztien arazo nagusia, bai ahala

MUTRIKUKO TANATORIOA
Ntra. Sra. de Begoña EHORZKETA
Iriagirre z/g
Tel.: 646 351 352 - 943 60 47 78
943 20 10 95 (24 ordu)

ASTIGARRAGA ANAIAK, S.L.U
ERAIKETAK
Tel.: 943 60 40 86 / 667 411 938
e-mail: astigarragamutriku@outlook.es
Txurruka Tteak., 28 behea - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)

dutenentzat, eta zer esanik ez, gu bezala, maila apalekoentzat. Arrauna ez da oso erakargarria gaztediarentzat, ez du futbolak duen erakartasunik, baina badu berezitasun bat: talde lana. Horretan jarduteak badu halako zerbait, non harrapatuta gelditzen zaren. Hori da guk baliatzen duguna. Hala ere, etekin ekonomikorik ematen ez duenez, zaila da uztartzea familia bizitzarekin edo lan exijentziekin, beraz ez da erreza traineru txapelketetan parte hartzeko nahikoa mutil izatea, maila egokian entrenatuak. Iaz herritar nahiko izan genuen tripulazioa ondo osatzeko, baina aurten kanpotarren bila joan behar izan dugu. Neskekin ere saiatu izan gara lehenago, eta aurtengoan lortu dugu batela uretaratzea.

Nola uste duzue konpon daitekeela arazo hori?

Esan bezala ez da inolaz ere erraza, baina gazte batentzat erakargarri izateko oinarrizko instalazio batzuk behar dira. Futbol zelaia bere instalazioekin ikusten duten bezala, berdin behar luke arraun talde batek erakargarri izateko. Jakina, hori ez dago gure esku, instituzioen laguntza ezinbestekoa da. Badugu ideia batzuk zein tamainatakoa eta non kokatu, baina dirua eta borondate politikoa behar da horretarako. Badirudi lege berri bat onartu berria dela Gasteizko Parlamentuan herri-kirolei babesa emateko. Ea horrek zorte pixka bat ematen digun.

Dena den, trainerua ispilu bat da, eta hori mantentzea beharrezkoa zaigu arraunlariak erakartzeko. Traineru gabe, egun, ez genuke elkarterik izango.

Esan duzue aurten neskak lehiatzen ari direla bateletan, eta arraunlariak etorri direla beste herrietatik. Nola hasi duzue denboraldia konpetizio aldetik?

Trainerurako tripulazioa 13 herritarrek, 4 ondarroarrek eta 2 zumaiarrek osatzen dute, eta badugu kanpoan bizi eta entrenamenduetara etorri ezin diren beste 3 mutrikuar, maila fisiko bat mantentzeko konpromisoa hartu dutenak beharren bat gertatuz gero ere. Aurtengo tostartekoek ez dute esperientzia handirik, beraz, txapelketan mantentze maila ematea izango dugu, oso goian jarritako helburua.

Mutilen bi trainerila uretaratu ditugu, eta emakumezkoen txapelketan hamasei urteko 6 neska ditugu bateletan besteekin lehian. Datorren urterako trainerila bat ateratzeko aukera handia ikusten dugu.

Entrenatzaile bezala Mikel Goenaga mutrikuarra aritzen da, orain hiru urte Ondarroako traineruan aritua. Tostartean ere badugu medikua den bat, aitona mutrikuarra eta Getxon bizi dena, eta horren laguntza ere garrantzizkoa zaigu.

Eta ekonomia arloan?

Arlo ekonomikoa iazkoaren antzekoa izango da. Babesle kopurua mantentzea lortu dugunez, superabitarekin bukatzea espero dugu. Aurten trainerilentzako arraun berriak erosi ditugu, eta baita ergometro bat ere. Debako errepidearen itxiera dela-eta, ezin izan dugu antolatu Mutrikun Gipuzkoako trainerilen txapelketa, eta horretan balizatzeagatik jasotzen genituen diru apurrak Legution balizatzea eginda lortu ditugu. Aurtengo ilusioak furgoneta berri bat lortzean dira, oraingoa Udalak garai batean utzitako furgoneta zahar bat baita.

Zenbat lagun aritzen zarete zuzendaritzan?

Sei bat lagun aritzen gara, baina laguntzaile ugari dira behar dugunean alboan jartzen zaizkigunak. Esan beharra daukagu herritarrak oso ondo portatzen direla gurekin, eta eskerrak eman beharrean gaudela.

Eta infraestrukturei begira markatu al duzue helbururik?

Badakigu ez dela gauza erraza, baina erakundeekin batera proiektu bat gauzatua ikusi nahi genuke aurtengo urtean. Ea lege berri hori ere lagun dugun.









zuek bultz, guk teink!

Gorritxu autoak
Pol. ANTZOMENDI · Galdona bidea
MUTRIKU 943 60 31 86
gorritxuautoak@hotmail.com

Uzuri RPS 183/12
ELGOIBAR - DEBA
optika audio
DEBA, Ostolaza 7 - Tel. 943 19 21 92
ELGOIBAR, San Frantzisko 21 - Tel. 943740359

GURE TXAKURRAK (II)
esanak eta izenak

Aurrekuan txakurren "izana" eta lanak aitxatu genduzan, gaurko honetan, berriz, beuren inguruko "esanak" eta "izenak" ekarriko ditxugu; izan ere, kalian zein baserrixan txakurra aspalditxik bizi da gurekin, eta hori dala-eta esaera, upin eta siñiskera askotan agertzen zaku.

ESANAK

Mutrikun esaera askotan agertzen zakuz txakurrak. Hona hemen entzundako batzuk: "*Han ere txakurrak oiñutsik*". Hain zuzen ere, gauza gehixenak edonun dirala berdin-antzekuak. Konparaziotarako, sasoi baten mutrikuar asko juaten zan Amerikatara pastore eta handik etorritxakuan halaixe esaten zeuen: "*Ameriketan ere txakurrak oiñutsik, hemen bezelaixe*". Beste esaera honek azaltzen deu diruak (ixa) dana mugitzen doala: "*Txakurrai diruak dantzan eragin zion*".

"*Bi nagusiren txakurra, gosiak hil*". Zuk emango, nik emango, iñork ematen ez eta azkenerako gosiak hil. Jabe edo nagusi bat baiño gehixo ez dala komeni gauza askotarako. "*Oillo gosia kantari, txakur gosia dantzari*". Txakurra gose danian, solte bado, edonora juaten da jateko billa, oillua berriz zarataka hasten da. "*Txakur gosiak, artua amets*". Gose izan ezkero, beste pentsamenturik ez. Kazari edo ehiztarixen umorezko esaera baten berri ere euki degu: "*Kaza-txakurra norberarena onena, andria bestiana*".

Umienak dira azken bi esaera honek: "*Iñuzente potente, txakurran buztana tente*" eta "*Lau. Txakur zaharrak jango ahal hau*". Azken hori, itxura danez, "lau" zenbakixa esandakuan ematen dan erantzuna da.

R.M.Azkue euskaltzaiñ lekeitxiarrak, "*Euskalerriaren Yakintza*" (1935) lanian, Gipuzkua eta Bizkaiko herri batzuetan (tartian Mutrikun) entzundako "trikimaillu" bat azaltzen digu, zetako eta txakurrek kalian kakarik ez egitxeko: "*Txakur bat usain txarreko zerbait egiten edo egin nairik dagoan artean, bere lana alperrekoa izan daitean, mutil bik alkarri atxikarretik [atzamar txikitxik] oratuta, batak bestearen izena esaten dabe. Juan ta Fausto badira, Juanek Pausto, Pausto, Pausto... esango dau: Faustok barriz Kuan, Kuan, Kuan, Kuan, Kuan. Eta bikondea [bikotia] aurrera doa, txakurra, ezer egin bage, zutunik ikusi arte.*". Ez dakigu, baiña, efektibua ete zan.


txakurra

Baserrixan ardi-txakurrak ulua egitxen bazoan, esaten zan beste txakurrei deika zihariduala alkarrekin ardixak itxotzera juateko. "*Han dabil gure txakurra, lagun billa, ardixetarako!*". Eta errieta egitxen zixuen. Beste batzuek esaten zeuen txakurrak gabaz uluaka baziharduan, haura seiñalia zala inguruko baten bat hilko zala...

Txakur amorratuak

Bada ohitxura zahar bat Mutrikun, txakurrekin loturia daukana. Gabon gabian, afaltzen hasi aurretik, aurreko urtetik gordetako ogi zatixa atera eta mahai gaiñian jartzen zan. Gabero bezela, mahaixa bedeinkatu eta ogi berrixari kutxilluakin kurutzia egin eta gero zati bat kentzen zakon. Ogi berritxik kendutako zati haura aurreko urteko zaharraren aldamenian jartzen zan, bixak mahai gaiñian. Afarixa amaitxutakuan bi ogi pusketa harek gorde egitxen ziran. Zaharra, bixamunian –Natibitxate egunian– ematen zixuen etxeko txakurrei "ez amorratzeko", eta berrixa hurrengo urtera arte gordetzen zan. Ogi puxketa haura urtebete euki arren ez zan lizuntzen eta ez zakon mamorrorik inguratzen. Ogixa gogor-gogor geratzen zanez pixka bat uretan beratu eta txakurren jatekuari nahasten zixuen.

Amorrua ez zan txantetan ibiltzeko kontua, ez horixe! Horregaitxik aitxatzen dira txakur amorratuak Mutrikuko 1897.urteko ordenantzetako lau artikulutan. Erderaz, 'hidrofobia' edo 'rabia' esaten zako gaixo horri. Hona hemen lehen bi artikuluak: "*Art. 120. En el momento que fundadamente*

txirritxa .com
SAR ZAITEZ GURE WEB ORRIAN ETA AURKI EZAZU PROMOZIO BEREZIAK!
Tel. 946 832 600
Gardotza Industrialdea, 3 > 48710 Berriatua > Bizkaia

OKILA S.L.
SUKALDEKO ALTZARIAK
EBANIZTERIA
OKILA AROZTEGIA S.L.
Txirritxa - Mutriku
Tel. 943 60 40 18 - Faxa: 943 60 31 03

se sospechase que un perro se halla atacado de hidrofobia deberá su dueño sacarle a despoblado y matarle. Art.121. Tan pronto como se supiese que ha sido atacado de hidrofobia un perro, todos los que hubiese en la población deberán ser atados y recluidos para que no puedan salir de casa de sus dueños en los días que disponga la autoridad".

Hurrengo bi artikuluetan ere antzeko aginduak ematen dira: Susmatzen bada txakur batek amorrua dakala eta pertsona edo animalixaren bati haginka egitxen badio, obserbaziuan euki bihar dira amorruak jota ete dozen jakiteko (122. artikulua). Txakur amorratu batek haginka egitxen badio animalixa bati, animalixa hori hil eta zulo sakon baten lurperatu biharko da (123. artikulua).

IZENAK

'Txakur' elementua dakarden bi toki-izen edo toponimo topatu ditxugu Mutrikun. Lehelengua, *Txakurtoki* edo *Txakurtokiko zulua*. Mijua bailleran do, Doiztu goikua baserritxik gora eta Aldabe errekatik hurre. Bigarrena, idatzizko dokumentaziuan baiño ez det ikusi. *Chacur-urcatua* izeneko gaztaiñadixa aitatzen da 1783.urtian. Itxura danez, baten batek txakurra urkatuko zoan bertan, eta hantxik izena.

"Txakur" hitzak etxeko animalixa maitxagarri horrezaz gaiñera beste esanahi batzuk ere badakaz. Batetik, zerratokixan-eta, tronguak eta egurrak estutzeko eta ez mugitzeko erabiltzen dan erremintxia da. Bestetik, landara bati izen xelebre hau esaten dixue batzuek: "*txakur ipurdixa*" (Eupatorium cannabinum). Ez dakigu nundik nora hartu doan izen hori. Nunbaitx irakurri degu landara horren ostruak txiki-txiki egin eta ur hori ona dala, txakur eta zaldixen illian igurtzitxa, intsektuak uxatu edo aldentzeko.

Txakur txikixak eta txakur haundixak

Sasoi baten geure herrixan 5 zentimoko txanponei *txori txikixak* esaten zakuen eta 10 zentimokuei berriz *txori haundixak*; baiña, horrek ez ziran izen bakarrak, *txakur txikixak* eta *txakur haundixak* ere esaten zakuen. Zer dala-eta txakurrak? 1870. urtetik aurrera kobrezko 5 eta 10 zentimoko txanponak erabiltzen hasi ziran, eta txanpon horretan orduan Espaiñiaren ikurra edo sinbolua zan lehoia azaltzen zan. Herritxarrek txantxetan lehoia baiño "txakur haundixa" ematen zoala hasi ziran esaten. Azkenian, izen horrekin geratu zan 10 zentimoko txanpona. Txanpon horrek Espaiñiako gerra zibil ostera arte erabilli ziran. Desagertzeko ahalegin bat baiño gehixo egon arren, 1941eko urrixaren 29xan debekatu zitxuen. Kobrezko haren ordez, 1940xan egindako 5 eta 10 zentimoko txanpon berrixak hasi ziran erabiltzen, aluminiozkuak. Txanponetan lantzadun zaldizkua agertzen zan lehoiaren partez. Hala ere, izenak eta izanak bat egin ez arren, *txakur haundi* eta *txikixek* jarraitxu zeuen guztion ahotan.

1947ko txakurrak

Aurrekuan esan gendun 1947. urtian 70 *jan-txakur* zozela Mutrikun. Erderaz "perros de lujo" esaten zakuen kaletarren txakurrei, izan ere baserrixetan bizi ziran txakurrek —guztiek— bazaken beuren zeregiña: etxia edo ardixak zaintzia, kazan juatia... Kale-txakur edo jan-txakurrak arraza edo klase askotakuak izan zeikezen; adibidez, San Agustin kalian bizi zan Dolores Aginagaldek polizia-txakurra zakan, eta eleiz atzeko Bernabe Arrietak San Bernardua.

Orduko txakur horretatik 62ren izenak ezagutzen ditxugu. Baiña, izen batzuk errepikatuta zozenez, danetara 41 izen dakiguz. Honek dira errepikatzen ziran izenak (orduko dokumentu baten agertzen diran bezela idazten ditxut): *Chiqui* (8 txakur), *Toni* (7), *Kuki* (3), *Bat* (3), *Bi* (2), *Perrin* (2), *Rayo* (2) eta *Jaiqui* (2). Eta gaiñontzekuak: *Alegre, Arbe, Bicain, Bobi, Busca la vida, Collar, Deferente, Diana, Gran, Kial, La, Laraza, Leal, Linda, Listo, Lopis(?), Luna, Mama, Mimi, Miñón, Negus, Ona, Perla, Perrita, Raku, Román, Rrain(?), Satán, Sein, Señi, Tigre, Tris* eta *Valiente*.

Bistan do gerraosteko urte haretan euskeria ez zauala oso modan jan-txakurrei izena jartzeko orduan. Hiru talde nagusi egin leikez txakurren izenekin: izaeriaren berri ematen diguenak (Alegre, Bicain, Listo, Ona, Valiente...), tamaiñua edo itxuria kontutan hartzen zeuenak (Chiqui, Gran, Linda, Perrin, Perrita...), eta izen arruntak (Bobi, Diana, Kuki, Luna, Perla, Toni...).

Mutrikun, gaur egungo txakurren izen guztiak ez dira euskerazkuak, baiña proportziuan euskeriak orain dala 72 urte baiño pixu haundixagua daka. Hona hemen oraingo izen batzuk: *Beltza, Binba, Bultz, Dik, Elur, Haitz, Kixmi, Koxkor, Lai, Laika, Lanbro, Leun, Lur, Mendi, Nala, Oker, Pintxo, Potxolo, Taila, Txuki, Williams, Xola*...

Horraiño gure herriko txakurren gaiñeko esanak eta beuren izenak. Azken gauzatxo bat, itxura danez txakurrak gu baiño askozaz azkarrago zahartzen dira, pertsonen urte bakoitzeko zazpi urte pasatzen zakue eurei. Txakurren jabiek, baiña, ez dixue garrantzi handirik ematen horri, alkarrekin bizi izandako urtiak urrezkotzat daukez-eta.

Josu Larrañaga Arrieta





txakur haundixa








LAIA

Zorionak... maiatzaren 1ean 7 urte potolo bete duzulako!!! 3 muxu Potolo zuretzat!





ARIANE

Belarritik tira gure etxeko bi txipristinei zuen urtebetetze egunak izan direlako. Matxo potoloak familiaren izenean.



UXUE

Gure etxeko sorgintxuak 3 urte!!! Marrubizko muxuak zuretzat! Zorionak!!!



OLABARRO eta XARPA

Xarpaneko izurdia uretan dzanga! sartuta Olabarroi eoten zan Kruz Rojan astoratuta ordutik zenbat denbora, zenbat poz, zenbat burruka momentu txarrenak ere pasa ditxuzte batuta hamar urtian nobixo, hogeitabost ezkonduta kruzeroik karuenian juan Italia puntara gaztetan bezain fogoso, (gaztetako ilusioz) segitxu baietz muxuka beste hogeitabost urte ilargiari helduta. Zorionak barru-barrutik Bilbao-Elezgarai familiak



KARMELE eta LANDA

Maiatzaren 14an zilarrezko ezteiak bete dituzte Landa genio biziak eta Karmelek! pazientzia ederra! Bien artian bikote maitagarria. Zorionak bihotz-bihotzez Bilbao-Elezgarai familiak. “Yo tambien te...”



DANEL

Urtebete haundi maiatzaren 3an. ZORIONAK familiaren partez eta bereziki Aner, Adei, Ibai, Enaitz eta Eberrek.



MARIA eta JON

Ekainaren 15a izan dadila inoiz ahaztu ezineko eguna!! Zorionak familia osoaren partez, baina bereziki Nahia eta Jone.

ZORIONTZEKO

E-POSTA kalaputxi2001@gmail.com / aldizkaria@kalaputxi.eus

WHATSAPP 635748393 **ESKURA** ANSORREGI ZAPATA-DENDAN



ERAIKUNTZAK
OLATZ S.L.
Igeltseritza orokorrean, Txalet, Erreforma...
Tel. **943 60 44 10** / **670 41 42 23 - 24**
Olatz Auzoa, Urrestieta Baserria - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)

Argazki Zaharrak




▲▲ **1981 urteko kanpeonato lokala. Brahet Rangers taldea, Mostik-Maixa taldearen aurkako partidiaren aurretik**

Partidu honetan Olabe hilberriari omena egin zitzaion, eta Brahet Rangers taldeak banderina egin zuen propio egun horretarako.

Tente: Juan Ignacio Iparragirre (presidentea), Jesus Mari Alonso, Martin Zabala, Luxio Arostegi, Martin Usandizaga, Jose Luis Zumalabe, Josetxo Arostegi, Valentin Zumalabe, Jose Mari Manzisidor "Txilin", Agustin Burgaña "Koko", Miguel Eizagirre eta Jesus Mari Sanchez (entrenatzailea).

Kukulumutxu: Eduardo Sanchez "Txutxi", Aitor Mendibe, Juanjo Areizaga, Josetxo Flores "Kaskas", Jesus Mari Beristain "Epi", Jose Nuñez "Joselito" eta Xabier Iparragirre.


ANSORREGI
oinetakoak
erdiko kalea 9
mutriku
943 60 33 42
agerretxo@gmail.com

Joseba Iñaki Eleizgarai
masajista eta osteopatia
Tel: 630 788 059 - Konte kalea 22, Mutriku

www.kalaputxi.eus/botikak

ZAINTZAKO BOTIKAK

(gaueko 10ak arte)

MAIATZA		EKAINA	
20tik 23ra	Hiart Burgoa	1 eta 2	Lasuen Elezgarai
24tik 26ra	Amaia Zalduegi	3tik 6ra	Amaia Zalduegi
zapatu (25) goizean, Lasuen-Elezgarai		7tik 9ra	Hiart Burgoa
27tik 30era	Lon Apraiz	zapatu (8) goizean, Lon Apraiz	
31	Lasuen Elezgarai	10etik 13ra	Lasuen Elezgarai
Gauetan, egunero (22:00-00:00):		14tik 16ra	Lon Apraiz
ELGOIBAR		17tik 20ra	Hiart Burgoa
Gauetan, egunero (22:00-09:00):		21etik 23ra	Amaia Zalduegi
Mercedes **ZUMETA**		zapatu (22) goizean, Lasuen-Elezgarai	
San Agustin 5, EIBAR		24tik 27ra	Lon Apraiz
943 82 04 98		28tik 30era	Lasuen Elezgarai

#AGENDA#

HISTORIA JARDUNALDIAK

Zabiel kultur etxean, 19:00etan

maiatzak 23, eguena
Lizarrako Forua, Mutrikuko Forua. Emakumeen eta haurren ikuspegi juridikoa XII. Mendeko legean.
Hizlaria: Xabier Irujo

maiatzaren 20tik 24ra
ASTE MUSIKALA
Zabielen, arratsaldez

maiatzak 25, zapatua
Euskal Erromeria
Eguerdian eta arratsaldean

maiatzak 31, barixakua
DANTZA pelikula

ekainak 2, domeka
Umeen Euskal Jaia

ekainak 9, domeka
Arnoko mendi martxa

MUTRIKU FUTBOL TALDEA

75. urteurrena
EGITARAUA

maiatzak 24, ostirala
19:00etan Udaletxeko Bilkura aretoan
Mahai-Ingurua: Gaur egungo futbola
(Mikel Etxarri, Fran Garagarza, Asier Illarramendi, Aintzane Encinas, Leire Fernandez, Txemi Galarragarekin)

maiatzak 25, larunbata
17:30ean San Migel futbol zelaian
Beteranoak: Mutriku FT – Erreala

maiatzak 30, osteguna
19:00 etan Zabiel kultur rtxean
Gogoetarako mahai-Ingurua:
Dena ere ez da futbola.
(Jagoba Arrasate, Andoni Egaña, Juanjo Alvarez, Luki Iriarte, Ane Urkirirekin)

ekainak 8, larunbata
12:00etan San Migel futbol zelaian
Erreala – Eibar – Mutriku
Emakumeen Triangeluarra
16:00etan: Mutriku FT – Aurrera Derbya
20:00etan: JOKOZ KANPO Antzezlana

ekainak 22, larunbata
HERRI JAIA
Ekainean zehar, Zabielen
75. URTEURRENEKO ERAKUSKETA

MENDI IRTEERAK

ekainak 16
Sara-**ATXURIA**-Zugarramurdi
uztailak 5, 6, 7
SIERRA CEBOLLERA (Errioxa)
irailak 8
Egino-**OLANO**-Otzaurte
urriak 13
MANDOEGI
azaroak 17
Elizondo-**ALBA**-Elizondo
abenduak 1
ARNO inguruak

Burumendi Mendi Elkartea

ODOLA EMATEA

ekainak 14, 18:00etan anbulatorioan
Gipuzkoako Odol Emaileak

ZINE FORUM

zabiel kultur etxean · 22:00etan

maiatzak 31, barixakua
DANTZA

egitarauak eta deialdiak: **aldizkaria@kalaputxi.eus** edota **whatsappa 635748393**

www.kalaputxi.eus

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA
Hondartza 3-4, behea
31 postakutxa
20820 DEBA
Tel. eta faxa: 943 192 249
Mob. 629 639 685
629 641 940
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com



MUTRIKU
BAT EGINIK

EAJ-PNV.EUS

Ezker-eskuin: Bittor Andonegi, Oihana Iparragirre, Xabier Egurbide, Rosarito Rementeria, Izaskun Iparragirre, Xabier Eizagirre, Jose Angel Lizardi, Miren Beristain, Elena Cebrian, Aitor Agirretxea, Iñaki Arrizabalaga, Joseba Antxustegi, Usua Antia eta Ion Gambra.

eaj pnv

EMAN BOTOA

Zurekin MUTRIKU gara



Zutik: Federico Herrero • Jon Naberan • Izaskun Osinalde • Aitor Itza • Ainhize Azpiazu - Joseba Palenzuela • Garoa Arizmendi • Ane Urkiri • Pello Andonegi
Makurtuta: Txuma Murugarren • Garbiñe Galparsoro • Beñat Arrizabalaga • Aitziber Andonegi • Haizea Egaña • Ruben Andonegi • Maider Elustondo